

Zugarramurdi txotxongiloen paradisu

Euskal Herri osoko taldeak izango dira Titiriteroen Topaketetan gaur eta bihar

Gorka Erostarbe / Donostia

Euskal Herri osoko txotxongilo taldeak Zugarramurdi belduko dira aste-buru honetan, Euskal Titiriteroen III. Topaketen baitan. Larunbatean sei talderen emanaldiak izango dira ikusgai; bost talderenak aldiz igandean. Bi egunetan musika kontzertuak emango dio amaiera egitarauari.

ZUGARRAMURDIK (Nafarroa) berezkoa duen fantasia nahiz alegiazko xarma, are handiagoa bilakatuko da asteburu honetan. Kisulabe elkarteko lagunek Euskal Titiriteroen III. Topaketak antolatu dituzte eta, Euskal Herri osoko txotxongilo taldeak Zugarramurdi izango dira, panpin miragarri horien bitartez jite guztietako istorioak kontatzeko. Zugarramurdi txotxongiloen paradisu bilakatuko da. Orotara 10 taldebilduko dira Zugarramurdi eta musikarako tarterik ere izango da, jardunaldi bakoitzaren amaieran.

Orain dela lau urte

Duela lau urte ekin zioten Kisulabe elkarteko lagunek Euskal Titiriteroen Topaketak antolatzeari. Zendu berria zen elkarteko kide baten omenez atondu zuten lehen ekitaldi hura. «Mikel eta Estefa. Arte Ederrak ikasi ostean eta Frantzian txotxongilo eskoletan jardun ostean Zugarramurdi bizitzen jarri zen bikote bat zen. Haiek sortu zuten Euskal herrian orain arten izan den txotxongiloen antzoki estable bakarra. Mikel orain lau urte hil zen eta haren omenez Euskal Herriko hainbat txotxongilo



Antzerkia Zugarramurdiko kaleetan, topaketen aurreko ekitaldian.

egitaraua

Gaur

16:30ean: Behi bis (*Petra petral*)
17:30ean: Corrado masacci (*Marionetas en movimiento*)
18:00etan: El tenderete (*Menudencias*)
19:00etan: Pagopie (*Itzal-antzerkia*)
20:00etan: Taun-taun (*Txiotxoka*)
22:00etan: Goloka (*Kale-antzerkia*)
23:00etan: Ozel, Joxe Ripiau, Eztanda

Bihar

11:30ean: Taupada (*Argitxo iratxoren abenturak*)
12:00etan: Kukubiltxo (*Txirrikiz*)
13:00etan: Kukuma (*Kale-antzerkia*)
14:30ean: Herri bazkaria, pilotalekuan
17:00etan: Bihar (Antzezki berri bat)
18:00etan: Joseba Tapiaren kontzertua (*Quebec*)

talde bildu genituen, eta hala sortu zen topaketen», azaldu dio EGUNKARIARI Kisulabe elkarteko kide Elena Juriok.

Lehen aldi hura «esperientzia polita» izan zenez gero, bi urtetik behin jaialdia egitea

pentsatu zuten. Bigarren topaketa egitekotan zirelarik (1998an) Estefaren heriotzak kolpatu zuen elkarte. Haren eta Mikelen omenez egin zuten beraz bigarren aldi hura. Bi urte gero heldu da hirugarren aldia: «aurrekoetan bezala Euskal Herriko titiritero talde guztiei egin diegu gonbitea eta nahi duen oro edo ahal duen oro izango da topaketetan», Juriok esan digunez.

Bai gaurko eta bai bihar, egitarau oparo hornituak apailatu dituzte. Txotxongiloekin hasi eta musika kontzertuarekin amaituko baitira bi jardunaldiak. Jaialdia Behi bis taldearen emanaldiarekin hasiko da eta, ondoren, txotxongilo antzerkiko talde nagusienak igaroko dira taula gainetik. Bi egunez bederen, panpinen istorio miragarriek jantziko dute Zugarramurdiko herria.

Txotxongilo antzoki iraunkorraren itxiera

ARESTIAN aipatu bezela Mikel eta Estefa izan ziren Euskal Herriko lehen txotxongilo antzoki iraunkorra sortu zutenak. Arte ederrak ikasi eta Frantzian hainbat txotxongilo eskolatan ibili ostean Zugarramurdi kokatu ziren 1995 aldera eta Kimilikiliklik taldea eratu zuten herriko beste bi lagunekin batera. Txotxongiloen mundua sustertzen saiatu ziren zinez. Mikel eta Stefaren heriotzaren ostean, beste biek jarraitu zuten Antzoki iraunkorraren kudeaketarekin. Joxe eta Iñigori Taun-taun taldeko kide bat batu zitzairen eta hirurek jardun dute orain gutxi arte antzokia bizirik mantentzeko ahalginetan.

«Azkenean ordea etsi egin behar izan dute», azaldu digu Elena Juriok. Izan ere, orain pare bat hilabete lokalaren nagusiak antzokia itxiarazi egin baitzien. Ondorioz, Euskal Herrian txotxongiloen emanaldietarako propio atunduriko antzoki bakarrak ateak itxiak ditu egun. Baina ez da dena ezkorra. Aitzitik, asteburu honetako topaketak Kisulabeok lanean jarraitzeko duten gogoaren isla dira.

Finlandian zehar bira arrakastatsua egin du Markeliñe antzerki taldeak

■ 'Kale gorrian' lana eskainiko du gaur eta bihar Durangon

Montse Arregi / Bilbo

MARKELIÑE antzerki taldeko kideak oso pozik itzuli dira Finlandiatik, bertan egindako biratik. *Kartoibiraka* haurrentzako antzezlanaren aurkeztu dute bertan, eta oso harrera ona izan dutela azpimarratu zuten atzo. Bestalde, gaur eta bihar Durangoko San Agustin Kulturgunean *Kale gorrian* lana eskainiko dutela azaldu zuten.

Zornotzarrek Finlandian eskaini duten *Kartoibiraka* lanak hainbat sari jaso ditu Gijongo jaialdian estreinatu zutenean, eta Espainiako Max sarietarako nominatua izan zen.

Finlandian zazpi emanaldi eskaini ditu Markeliñek, «eta espero genuena baino arrakasta handiagoa lortu». Gogor ospea daukan kritikariren batek ere *Kartoibiraka*ren kritika bikaina egin zuela gogorazi ziguten atzo taldeko kideek.

Beste bidaietarako txartela

Finlandian eskainitako emanaldietan hainbat programatzaile izan dira, eta Markeliñekoen ustez bidaia horretatik «beste batzuk egiteko txartela» etorriko zaie.

Finlandiako haurrek testurik ez duen antzezlanarekin barre egin dutela azaldu zuten taldekideek. «Euskal Herrian zein Finlandian umeek gauza bereberie egin dietela barre ikusi dugu», adierazi zuten. Hala ere, publiko finlandiarra euskal herri-tarra baino «hotzagoa» dela deritzote, «nonbait kaleko tenperaturaren eragina edo».

Gaur eta bihar Durangon taularatuko duen *Kale Gorrian*, Finlandiara eramane duen *Kartoibiraka* edota arrazakeriaren aurkako *Alo, Europa?* antzezlanak han eta hemen eskaintzen ari da Markeliñe azken aldian. Dena den, helduentzako antzezlan berria prestatzen ari direla aurreratu ziguten atzo. Lan berriaren estreinaldia datorren urterako aurreikusten dute zornotzarrek.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

UDALEKUAK 2000
BEGIRALEAK
EZINBESTEKOAK 18
URTE EDO GEHIAGO
ETA BEGIRALE
IKASTAROA EGINA
IZATEA
DOKUMENTAZIOA:
 (00.04.05 arte).
 Argazki bat / ENA fotokopia bat / gure inprimakia beteta eta bertako datuak egiaztaturik.
POSTAZ BIDLITAKOAK
EZ DIRA ONARTUKO
NON/NOIZ: AIF Extremadura kalea 7, behea - Vitoria-Gasteiz. (Astegunetan 16:30 - 18:30).

AKUPUNTURA
MOXIBUSTIOA
MEDIKUNTZA
NATURISTA
Jesus M^a Arbea Polite
Medikua
 Manuel de Falla, 14
 Tel.: **948 24 24 58**
31005 - IRUÑEA

Lete
 itzulpenak
 egokitzenak
GAZTELANIA
EUSKARA
administrazioa • publizitatea
enpresak • filmak • liburuak
zuzenketak
 Tel.: **943 515 346**
 Faxe.: **943 521 380**